

TRIKI UP

TRIKITIXAN BIDEA IREKI NAHIAN

MARTXAUNDI

Martxaundi III entzuteko aukerarik izan baduzu konturatuko zinen zeinen erraz sartzen den belarrira lehenengo kantua. Ba kantu honen atzean dagoen taldearen elkarrizketa duzu orain irakurri ahal izango duzun hau. Partaide gazteak izanagatik ere ideiak oso garbi dituen taldea.

GALTZAUNDI. Nola sortzen da triki Up taldea?

TRIKI UP. Orain dela bost urte inguru Amezketa musika irakasten hasi ziren, eta oraingo taldearen oinarria orduan sortu zela esan liteke. Ainara (trikitixa), Naiara (panderoa eta ahotza), Agurtzane (teklatura eta ahotza) eta Uxue musika eskola horretako ikasleak ziren, eta beste gazte askori bezala talde bat sortzea bururatu zitzairen; baina sortu ere. Talde hark ordea ez zuen bidea luzea izan. Nik, (Jon) bateria jotzen duen lehengusu bat dudanez beti izan naiz instrumentu horren zale eta jakin banekeen Amezketa bazela talde bat. Hori dela eta duela bi urte inguru beraiekin harremanetan jarri nintzen eta segituan hasi ginen ensaiatzen. Irailean kitarra eta baxu jole baten beharra gurela ikusirik beste Jon bat sartu zen taldean.

G. Trikitixa taldeak horren ugarriak diren urte hauetan ez al du beldur pixka bat ematen saltsa horretan sartu nahi izateak?

T. Egia da taldeen arteko lehia izugarria dela, baina gure helburuak ere nahiko argi ditugu. Guk badakigu oso zaila dela gaur egungo erromeria taldeen artean leku bat izatea baina guk musika ondo pasatzeko tresnatzat hartzen dugu; eta ondo pasatzeaz gain guk egiten duguna jendeak gustoko badu eta jendeak jotzeko aukera ematen badigu askoz hobe.

G. Zuzenean jotzeko aukerarik izan al duzue?

T. Lehen esan bezala taldearen oinarria amezketarrek osatzen dute, horren ondorioz eta herriko taldeak bultzatu asmoz Amezketa Udalak

ensaiatu ahal izateko lokala eta musika ekipo txiki bat utzi dizkigute. Hori dela eta guk iazko herriko festetan aritzeko aukera ere izan genuen; herriko festez gain ere jo izan dugu Amezketa. Beraz ikusten duzun bezala eskertu behar dugu gugatik egin duen guztiagatik Amezketa Udal eta baita Martxaundi ere bertan sartzeko aukera emateagatik. Bestalde Zuzenean jotzeko aukera badugu Ibarrako festetan baina momentuz nahiko zaila ikusten dugu horren plaza handi eta garrantzitsuetan jo ahal izatea.

G. Zuen kantuaren hitzei erreparatuz nabari da Euskararen aldeko jarrera argia, sentsibilizazio berezi bat duzue Euskararekiko.

T. Ezer baino lehen esan beharra daukagu nork lagundu digun abestia egiteko garaian.

Lehen esan bezala taldekide gehienak Amezketa musika eskolan ikasten dituzte beraien instrumentuak, eta musika eskola horretako irakasle den Iker Goenaga trikitilari ezagunak egina da kantua. Hitzei dagokienez berriz Bixente Gorostidi Amezketa bertsolari batek jarriak dira; guk abestia grabatu genion eta horren gainean berak guk inongo gairik eman gabe idatzi zuen.

G. Estudioko emaitzerekin gustora geratu al zarete?

T. Guretzat lehen aldia izan da baina gustora gaude nola geratu den ikusi ondoren. Guk hasera batean buruan genuen ideiarekin nahiko bat dator azken emaitza. Dena den abestia ere ez da beste mundukoa eta ez dauka konplikazio handiegirik. **G**

Jon Sarasola



Duela bi urte osatu zen Amezketa Triki Up taldea.